

# BERRIGARA

3. zenbakia

JARDUN Elkartea, Bergara

1996, uztailak 12



## Jaiak San Kristobalen

### **Autopulmans Araba S.L.**

Angiozar auzoa, 3 BERGARA

**AUTOBUSAK**

Telefonoa: 76 55 70

**Era guztietako bidaietarako autobusak: sagardotegi, ezkontza, bodega, ikasketa bidai, despedida, lantegi, eskola...**



FOKA EZAZU AURREKONTUAN

# GIARTZU

ESTETIKA ZENTRUA

BONI LASKURAIN, 3 TELEFONOA: 76 35 71

*Kalitate haundieneko baliabideak,  
emaitzarik onenak lortzeko*



ABUZTUKO ORDUTEGIA: 09:00-14:00



GERMAINE DE CAPUCCINI

EDERTASUNA DAGOKION TOKIAN

## BERRIGARA

BERROTALDE JAUREGIA  
1070 Bergara  
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

## Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte.

## Zuzendaria:

Arako Azkarate

## Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Angel Elkoroberezibar

Arne Larrañaga

## Bakertaria:

Arako Azkarate

## Publizitatea:

Arako Azkarate

## Argazkiak:

Arako Elortza

## Bostuen zuzenketak:

Esteban Plazaola

Arampi Laskurain

Arako Labaien

## Erredakzio kontseilua:

Arako Elortza

Angel Elkoroberezibar

Arako Labaien

## Komikiak:

Arako Rodriguez

Arako Ortega & Jon Alvarez

Arako Ugalde

Arako Azkarate

## Banaketa:

Arako Angorri taldea

## Irada:

Arako ale.

## Aprimategia:

Arako Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

## Copyright:

BERRIGARA

## Aldizkariaren gordailua:

76 50/91

## ISSN:

1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako irazpenen eta irazpenen erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

## MIREN ZURBANO

## Drogaren kontrako elkartekoa

- Drogaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatzeko gaurko hainbat ekitaldi antolatuzuzue.

- Horrela da bai. Deba Garaian familia asko gara arazo honekin afektatuta gaudenak. Gasteizeko Proyecto Hombreko arduradunek zerbait antolatzeko proposatu ziguten eta iaz hasi ginen, Arrasaten, drogaren aurkako eguna ospatzen. Aurten Bergarara ekartzea tokatu da.

- Zein litzateke egun hau ospatzearen helburu nagusia?

- Jendeak drogaren arazoari buruz kontzientzia hartzea izango litzateke helburu nagusia, arazoa ezagutzen ez duen jende asko baitago. Horretarako hainbat eki-



taldi izango dira gaur Plazan. Giza-kate bat egin nahi da arratsaldeko 6 eta erdietatik aurrera Plazan (zenbat eta jende gehiagok parte hartu hobe), txalaparta eta trikitilariak izango dira, Xamatzeakoak ere bai, eta, era berean, "Ikas dezagun menpekotasunik gabe bizitzen" izenburuko manifestua irakurriko du Udaleko ordezkari batek.

**"Jendeak kontzientzia har dezan drogaren aurkako eguna ospatuko da gaur Bergaran"**

## I T U R R I O N E T I K

## Asier Garitanok Kataluniako Gava futbol taldean jokatu du

Asier Garitano bergarar futbolariak 2.B mailako Gava talde katalanean jokatu du hurrengo denboraldian.

Garitano aste honetan bertan iritsi da akordio batera

Gava taldeko zuzendaritzarekin eta datozen bi denboraldietan 2.B mailako III. multzoan dagoen Gava taldean jokatu du. Alavesen ibilitako Albesa edo

Cadizen Asierrekin batera jokatu zuten Quino eta

Pinorekin izango da. Era berean, Osasunako bi jokalarik Gavan jokatu dute. Asier Garitanok 26 urte

ditu, eta Bilbao Athletic, Eibar, Cartagena eta Cadizen

jokatu du orain arte. Joan zen denboraldian bere

multzoko 7. postuan sailkatu zen Gava taldea.


E S A N  
D U T E

"Beste modukoak dira orain festak: geroz eta gutxiago lotzen dira familiako harremanak festen inguruan, indarra hartu dute elkarteetako afariek, noiznahi tabernetan musika entzun eta dantza egiten da, mezetara joaterik ez da planteatzen eta ohikoa da noiznahi gaupasak egitea. Eta jende asko da herriko festak baino nahiago duena kanpora joatea. (...) Eguneroko presak eta betebeharrak utzi eta patxada hartzeko garaia dira festak"

**RUFINA OLASAGASTI**  
Bergarako udal kultur gestorea  
ARRASATE PRESS

"Egoera limiteei aurre egiterakoan pertsonak transformatu egiten dira. Izugarriko aldaketak jasaten dituzte. Jekyll doktorea eta Mr. Hyderen adibidea erreproduzitzen dute, bi aurpegiko txanponak bihurtuz. Guzti honen zerbait gertatzen da San Ferminetan"

**MARTIN GARITANO**  
Kazetaria  
EGIN



**LAS DOS CARAS DE LA VERDAD**

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30  
(Ikuslearen eguna).



▼▼ **Santa Marina jaiak** ospatuko dira asteazkenetik. 12etan etxafleroak, 4retan Jubilatuetan jokoak, 7etan buruhaundiak eta Kobok dultzaineroak, 8etan txokolata eta 9etan makalaren igoera. Ostegunean 19:30etan Herri Meza, ondoren Aritzeta- ren emanaldia eta 11etan Old Boys Quintet jazz taldearen emanaldia Usondon.



- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
  - Apalak
  - Kajoiak

**ARDATZA**

*Brikolaketa*

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

**Deiak**

▼ **Santi Arrietaren** eskultura eta zeramika erakusketa Ondarroako Udal erakusketa aretoan uztailearen 14ra arte.

▼ **Fernando Arenazaren** margo erakusketa Donostiako Le Bistro des arts erakustaretoan (Zubieta, 9), uztailearen 24ra arte.

▼ **Luis Laskurainen** margoak Aretxabaletako Durana aretoan uztailearen 12tik 21era.

▼ **Abdon Juaristiren** margo erakusketa Hondarribiko Kokoschka arte galerian uztailearen 12tik abuztuaren 8ra arte.

▼ **Beti-Bustiren** piraguismo ikastaroa uztailearen 22tik 26ra Albiran. Izen-ematea 76 44 65 (Alex) telefono zenbakian.

**Ogia**

▼ **Igandea 14:** Mizpildi.

**FARMAZIAK**

- ▼ **Eguakitza 12:** Camacho..
- ▼ **Zapatua 13:** Puy.
- ▼ **Domeka 14:** Puy.
- ▼ **Astelehena 15:** Estella.
- ▼ **Martitzena 16:** Mozos/ Corcuera.
- ▼ **Eguaztena 17:** Puy/Azkoaga.
- ▼ **Eguena 18:** Mozos/Ruiz.

**LAZKANO**


**Oinetakoak**

Barrenkale, 15  
☎ 76 25 03

# San Kristobalگو jaiak

## Jose Antonio Kortabarria maiordomoarekin berriketan

Asteazkenean, San Kristobal egunean, jende dexente bildu zen San Kristobalگو ermitan meza entzun, ibilgailua bedeinkatu eta lagunartean zerbait hartzeko asmoz. Aurten, Amuzkibar baserriko Jose Antonio Kortabarriari tokatu zaio maiordomo lanak egitea.



Jose Antonio Kortabarria.

- Zein izaten da maiordomoaren zeregina?

- Urtez urte baserri pasatzen den lana da eta aurten guri tokatu zaigu. Eliza txukundu, auzoko soziedadean zedozer falta bada ekarri, apaiari deitu eta urtean auzokideren bat hiltzen bada haren omenez meza antolatu beharra izaten du maiordomoak. Norbait ezkontzen bada, berdin... Eta ermitan obraren bat egin behar bada auzotarrak elkartu, presupuestoa egin eta arotzak edo igeltseroak ekarri.

- Zein egoeratan dago ermita?

- Nahiko ondo. Hala

ere, beharbada ermita pintatzea komeniko litzateke. Koruko bankuak ere ez daude egoera onean.

- Aurten Don Jose Maria Azkarate apaizak ez du etortzerik izan...

- Orain erretiratuta dago baina azken 50 urteetan urtero izan da hemen. Badirudi osasun aldetik ez dagoela oso ondo eta Fidel Eizagirre San Pedroko parrokoak ordezkatu du aurten.

- Kotxeak banan banan bedeinkatzeko ohitura ere aldatu da...

- Bai, nekagarria zen

kotxeak banan banan bedeinkatzea eta apaizak esaten duenez balio berdina dauka banan banan edo denak batera bedeinkatzeak.

- Zenbat ibilgailu izaten dira?

- Gaur, asteazkena, zerbait gutxiago baina astebukeraren ehun bat edo etorriko dira. Jende askok dauka urtero kotxea bedeinkatzeko ohitura.

- Zein izaten da astebukerako ekitaldirik arrakastatsuena?

- Zapatuko erromeria. Aurten, lehen aldiz plater tiraketa izango da zapatu arratsaldean eta esaten dutenez horra ere jende asko etorriko da. Baina gaueko erromeria izaten da jende gehien ekartzen duen ekitaldia.

- Azken urteetan asko aldatu dira jaiak?

- Ez, antzerako programa izaten da. Erromeriarako talde bat ala bestea ekarri izaten da nobederik haundiena, bestela urtero ekitaldi berdintsuak izaten dira.

### EGITARAUA

#### Eguakitza, 12

23:00: Bost-on taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

#### Zapatua, 13

16:00: I. San Kristobal Plater Tiraketa Saria eskonbreran.

23:00: Zabaleta eta Imanolekin dantzaldia goizaldera arte.

#### Domeka, 14

12:00: Meza Nagusia eta ondoren, kotxeek bedeinkapena. Jarraian auzoko jubilatuentzako luncha.

13:00: Elorza anaiak trikitilarien saioa eta umeentzako jolasak.



**"Zapatu gaueko erromerian bilduko da jenderik gehien; Domekan, osteran, ehun bat lagunek ibilgailua bedeinkatzeko ekarriko dute"**

**ARRANO**  
  
**Taberna**  
 Kruz Gallastegi BERGARA



**KORTA-ZAR**  
**Txokolategia**  
 Pintxo eta ogibitartekoan espezialitatea  
**OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK**  
 Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

## Euskal Herria Askatu!

Lema bat baino askoz gehiago. Urtebete inguru daramagu astelehenero Frontoian biltzen. Jadanik kolektibo iraunkor bat osatzen dugu. Hasieran gure kontzentrazioei kontramanifestazioak deitzen zieten, geroago Ertzantzaren presentzia "eskeini" ziguten, eta azkenik gure arteko batzuk Epaitegira eraman dituzte.

Jadanik ezagutzen dugu lehen sententzia: 20.000 pezeta kontzentrazio ilegal batean parte hartzeagatik eta bertan "apologia de terrorismo" delakoa egiteagatik.

Beste herritar batzuk erabaki dute Justizia espainiarri aurre egitea eta beraz ez dira deklaratzera joan. Jarrera koherente eta zintzo honen aurrean Ertzaintzak atxilotu eta epailearen aurrean eraman dituzte hauetariko batzuk.

Behin eta berriro, eta beraien esku artean dauzkaten tresna guztiekin, saiatu dira "Euskal Herria askatu" Frontoitik bidaltzen, baina ez dute lortu eta ez dute lortuko Euskal Herriko errealitatean murgilduta gaudelako.

Urteak eta urteak daramatzagu Euskal Herriko eskubideak aldarrikatzen eta Estatu espainiarren eta Euskal Herriaren artean dagoen gatazka konpondu arte jarraituko dugu, Euskal Herrian benetako eta zentzuzko pakea lortu arte.

Azkenik Berrigarako zuzendaritzari ohartxo bat: zuen astekarian gure kontzentrazioen berririk edo parean biltzen direnei buruz inoiz ezer ez azaltzeak, herri honen errealitate gordin bat ez-kutatzen du.

Astelehenero arratsaldeko 8etan Frontoian biltzen gara, zatoz!

JESUS MARI GARITANO. HBKO ZINEGOTZIA

## Autoritarismoa: Euskal Herriaren kontzentrazio tresna

Ikasleak bereganatu, beren pupitreei lotzea eta beren nahi faszisteei ejerzito sumiso moduan erantzutea..., gorrotoz eta ezjakinez hasiak.

Autoritarismoa asanblada bat egiten ez uztea baino gehiago da, ez dizkio bere errepresio besoak kolektibo guztiei erakusten, ezadostasun eta nazio eraikitze gogoia erakusten duen edonorentzat min eginez ateratzen den fenomeno da.

Autoritarismoak klaseen funtzionamendu normala ziurtatzea nahi du, irakasleak lotuz eta klaseak era "normalizatu" baten ematea posible eginez (beraien parametro eta interesetan oinarriturik). Horrela ezinezkoa bihurtu nahi dute gure ikasketa denboran zehar beste aktibitate batzuk ere garatzea, hala nola kritika, solidaritatea, borroka...

Ikasleak errespetu batean formatzea da beste helburu bat, errespetu hori derrigorutakoa da, beraien arauai eta horiek egiten dituztenei.

Beraz, autoritarismoa gaitasun eratzaile, imaginatiboa eta autodidakta akatzeko tresna eraginkor eta zuzena da.

Ikasleok ditugun eskubideak defendatzea ikasle ororen lana da. Lan zaila da, gure eskubideak gero eta murriztuago bait daude, eta hauek lortzeko borroka ondorio latzak ekar bait ditzake.

Hala eta guztiz ere, inoiz baino beharrezkoagoa da ikasle guztien esfortzua, egoerari aurre egin behar diogu, arriskatu eta gure ikastetxetan izate demokratiko eta partehartzailea lortzeko.

Autoritarismoari kaña!!

IKASLE ABERTZALEAK

## Garestiegi

Sarritan ikasleok Liburutegi Municipalera goaz entziklopedia baten beharra daukagularako, eta liburu hauek liburutegitik ezin direnez atera fotokopiatu egin behar ditugu, orrialde baten fotokopia batek 10 pezeta balio duelarik. Hau al da Udaletxeak ikasleontzat ematen duen diru laguntza? Itxura denez ikasleok diru asko daukagu esku artean eta ez zaigu axola pagatzea horrenbeste diru kurtsoan zehar.

Gainera orain oportetan gaudela eta eguraldi ona dugula gainean, okurritzen bazaigu Igerileku Municipalera joatea, orduan ere astakeri bat pagatu egin behar dugu. Leku municipal hauek "arduradunari" galdetu nahi nioke ea ikasleok garen negozio bat berandako ala pentsatu ote duen Beverly Hillsekoak garela. Azkenik esango dizut amak esaten didana diru eske noakionean: "Ez naiz banko baten jabea!"

O. A. IKASLE BAT. (NAN: 72.446.057)

## Arazoa konpondua

Orain egun batzu eman genizuen Bolintxo okindegiarekin genuen konfliktorekin berri, despidido bat zela eta. Orduan laguntza eskatu genizuen bezala, gaur zorionez, azaldu nahi dizuegu arazoa gainditu dugula, denontzat irtenbide egokia adostu ondoren.

Horrela, bada, herritar denoi, dendari, tabernari, denoi, eskerrak eman nahi dizuegu zuen laguntza barik irtenbidea zailagoa izango zelako.

Amaitutaz ematen dugu Bolintxo okindegiarekin genuen arazoa.

LAB

# Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



# Alderdien pake proposamenak aztertu ditu herritarren foro batek

## Hildako bat istripu batean

J.A.D. 43 urteko gizonzkoa hil zen asteazkenean Olan izandako istripu baten ondorioz. Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, arratsaldeko hirurak aldera, Donostian matrikulatutako Mercedes Benz furgoneta batek Olan bizi zen J.A.D. harrapatu zuen. Gurutze Gorrikoek zauritua erreanimatzeko ahaleginak egin arren, J.A.D. hilik heldu zen Arrasateko ospitalera.

## Jubilatuena Egoitza

Datorren urriaren 14ra bitartean Jubilatuen egoitza, larunbat arratsaldean itxita izango da. Era berean, zentruko lehen eta bigarren pisuak itxita izango dira igandeetan.

### HILDAKOAK

Aste honetan ez dugu hildakoen berri jaso.

### JAIOTAKOAK

Nerea Olabarria Jauregi

Ekainak 27

Haizea Alberdi Gonzalez

Uztailak 3

Ion Loidi Eguren

Uztailak 5

**Euskal Herrian** bizi den gatazka egoera aztertu eta pake biderako irtenbideak topatu nahian, Bergarako Elkarriko tailek bultzatu duen herritarren foroak, azken bost hilabeteetan egindako lanaren berri eman zuen asteartean prentsaurrean.

Bergarako herritarren foroan 25 bat lagunek jardun dute. Guztiak euren izenean aritu dira eta ez alderdi politikoak edo taldeak ordezkatu.

EA, EAJ, HB eta Jesus Egigurenen pake proposamenak aztertu dituzte azken hilabete hauetan foroetan. Asteartean emandako prentsaurrean, lau pake proposamen horiek aztertu eta eztabaidatu eta gero, atera diren ondorioak jakitera eman ziren.

Proposamen ezberdinen bideragarritasuna eragozten duten zailtasunen artean ondorio hauek atera dira foroetan: proposamenen arteko konparaketa egitea oso zaila da, balorazio, zehaztapen eta konpromezu maila ezberdinak daudelako; distentsio egoera lortzeko ahalegin falta dago; euskal gatazkaren agenteen arteko inkomunikazioa eta elkarrizketarako borondate falta



Balorazio positiboa egin dute herritarren foroetan parte hartu dutenek.

dago; hitzen eta ekintzen arteko koherentzia falta; kontraesanak daude proposamenen artean; kontzeptu ezberdinak erabiltzen dira proposamenean eta askotan kontzeptu berak esanahi desberdinak ditu bakoitzarentzat.


Proposamen ezberdinen arteko puntu amankomunen artean hauek aipatzen dira: proposamen guztiak azaltzen dute Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko gatazka politiko baten aurrean aurkitzen garela; egoera blokeatuta dagoela aitortzen dute guztiak, eta formula berriak aurkitu behar direla egoerari aurre egiteko; proposamen guztiak elkarrizketa edo negoziazio testuinguru

batean kokatzen dute irtenbidea; euskal herritarrei dagokie elkarrizketa prozesuaren ondorioak onestea; guztiak justizia eta giza eskubideetan oinarritzen dute konponbidea; azkenik, prozesuan aurrebaldintzak ezin direla jarri aitortzen da proposamen guztietan.

Proposamen ezberdinetan sakondu eta argitu beharreko puntuak hiru hauek dira: hausnarketa sakonagoa egin beharko litzateke zenbait eskubideren subjetoa zein den zehazteko; autodeterminazioa, autogobernua edo burujabatasuna bezalako kontzeptuen esanahia zehatzago definitu, eta proposamen guztiak gehiago zehaztu beharko lirateke.



Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14



**GAZTELU**  
**BURDINAKI DENDA**

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

## HBren salaketa

HBko zinegotzi taldeak Diputazioaren eta EUDELen jarrera salatu du komunikabideei bidalitako idatzi batean. HBk azaldu duenez, Gipuzkoako Diputatu Kontseiluak otsailean buruturiko bileran Udalen alde geratzen zen likidazioa 341 milioi pezetakoa zen, Bergarako Udalari 7 milioi t'erdi pezeta zegozkiorarik. Ordainketak atzeratu egin ziren eta HBk dirua itzultzeko eskatu eta Udalen iritzia kontutan hartzeko mozio bat aurkeztu zuen maiatzean Udaletxean. HBk salatu duenez, bere batzarkide eta zinegotziak mugitzen hasi diren arte, EUDELe ez du hitzik ere esan.

## Peregrinazioa

Uztailaren 25erako Arantzazuko Santutegira peregrinazioa eta Loiolako Santutegira bisita antolatu da. Irteera Bergararik goizeko 9:30etan egingo da autobusen geltokitik eta ibilbidearen zati bat (Zelai Zabaletik Basilikaraino) oinez egiteko aukera izango da. Penitentzia komunitarioa egingo da 11etan, 12etan Meza Nagusia. Basilikan, ordu bietan erromesen bazkaria Hospederian, 16:15etan bideoa, 5etan Ama Birjinari agurra eta orduerdi beranduago autobusa aterako da Arantzazutik Loiolara. Itzulerara arratsaldeko 8etan egingo da. Autobuseko txartelak 850 pezeta balio du eta erromesen bazkarirako txartelak 1.650 pezetan salduko dira. Izen-ematea San Antonioko Agirrebeñan, Zubiaurreko Garitanon, Barrenkaleko Zatoia dendan edo Zubietako Aranzabalen egin daiteke.



Orain urte eta erdi sortu zen artisten elkarteak 47 bazkide ditu. ARTXIBOA

## Beart artisten elkarteak Udalaren laguntza eskatu du

### *Lokal egoki bat eskatzen diote Udalari*

Beart Bergarako artisten elkarteak datozen egunetan Udaleko ordezkariekin biltzeko asmoa dauka, Udalari lokal egoki bat eskatzeko. Beart elkarteak Udalaren ininteres falta somatu du orain arte. Luis Laskurain elkarteako presidentek adierazi digunez, "bil honen bukaeran alkatearekin biltzeko asmoa daukat gure planteamendua zein den azaltzeko. Elkarteak sortu zenean Udalak lokal bat agindu zigun baina oraingoz ez daukagu gure paperak gordetzeko armario bat ere. Baldintza hauetan behintzat ezin dezakegu aurrera egin".

Beartek bailara mailan arte zentro bat martxan jartzeko asmoa zeukan iharduera ezberdinak kolektiboan lantzeko baina Laskurainek

esan digunez, "oraingoz guztiok biltzeko lokal batekin konformatuko ginbateke. Udalari ez diogu dirurik eskatu, lokal bat lagatzea nabikoa izango litzateke".

Bestalde, Luis Laskurainek elkartearen zuzendaritzan erreleboa izatea nahi du. Gaur egun, berarekin batera, Bingen De Pedro (presidenteordea), Dani Laskurain (diruzaina) eta Josuren Murgizu (idazkaria) ari dira lanean. Laskurainen hitzetan, "irailaren lehenengoetan elkarteak bilera egingo dugu eta gustatuko litzaidake beste talde batek gu ordezkatzea. Pentsatzen dut errelebo hori geratuko dela".

Beart herriko artisten elkarteak orain urte eta erdi inguru sortu zen eta gaur egun 47 bazkide ditu.



Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

## ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak  
Fatxadak, eskaparateak...

*Pepelu*

**Ilepaindegia**

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07  
**BERGARA**



# Uztaileko lehen egunetan 40 l/m2ko jaso dira Bergaran

## Igerilekuetan eta Turismo Bulegoan jende gutxi

Uste baino eguraldi txarragoa egiten ari da udan eta horren lekuko azken egunotan izandako euri jaskak ditugu. Luis Mari Agirrek eman dizkigun datuen arabera, uztaileko lehen 10 egunetan 40 litro/m2ko jaso dira Bergaran. Euri gehien joan zen domekan egin zuen, 29 l/m2ko jaso baitziren. Joan zen urteko uztailean 87 l/m2ko jaso ziren Luis Mari Agirrerren datuen arabera; 1994ko uztailean 22 litro, 93an 59 litro eta 92an, berriz, 83 l/m2ko. Aurtengo ekainean ere euri dexente egin zuen, eta San Juan inguruko egunetan 58 l/m2ko jaso ziren Bergaran.

Luis Mari Agirrerren ustetan, "egin duen euria egitea ez da hain arraroa. Benetan normala ez dena

sasoi honetan eguzkirik ez egitea eta izan diren tenperaturak dira. Gau botzak egiten ari da eta biru egunetan 8°Cko minima izan da. Uztailerako oso tenperatura bajua da hori".

Bestalde, astelehenean zabaldu zen Udal Turismo Bulegoak ere eguraldi txarraren ondorioak jasan ditu. Xabier Aranburu udal museo-ologoaren hitzetan, "biru eguneko datuak ez dira erreprezentatiboak baina badakit Donostian espero baino turismo gutxiago dagoela eta horrek, jakina, probintzia osoan izan du eragina. Orain arte katalan kuadrila bat eta aleman talde bat etorri da". Egunero herria ezagutzeko bi bisita gidatu antolatzen dira, 12:30etan eta 17:30etan.



Udal igerilekuetan ere eguraldi txarraren ondorioak igarri dira.

### Termalismo programa

Gipuzkoako Diputazioak jubilatuei zuzendutako termalismo programa jarri du martxan. 65 urtetik gorako pentsionistek Zestoa, Arnedillo, Fitero eta Lierganeseke bainuetxeetan egonaldiak egin ahal izango dituzte. Udazkeneko txandetan parte hartu ahal izateko eskaerak uztailean 30a baino lehen aurkeztu beharko dira Jubilatuetan, astelehen, asteazken edo ostegunetan 10:30etatik ordu batera. Argibideak 76 21 40 telefonoan jaso daitezke.

### Tourra ikusteko irteera

Euskal Herria askatu! batzordeak, Mundu zabalean ikus gaitzaten lemapean, uztailean 17an Tourra ikusteko Larraineko (Larraun) mendatera autobusa antolatu du. Irteera goizeko 4retan izango da Bergaratik. Izen-ematea Arrano tabernan.

### Zozketa

Bergarako Jarraik antolatutako zozketan, 1.814 zenbakia izan da saritua. Boletoren jabeak mariskada bat eskuratuko du.

### Jubilatuentzako egonaldiak

Diputazioaren Tarteko izeneko programaren barruan, jubilatuentzako Alcoceberren egonaldiak antolatu dira. Txandak honako hauek izango dira: irailaren 30etik azaroaren 28ra, irailaren 30etik urriaren 30era edo urriaren 30etik azaroaren 28ra. Diru sarreren arabera prezio ezberdinak izango dira. Informazio gehiago 900 43 43 43 edo 76 21 40 telefonotan.

**ZUBIETA**  
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

**umelaga**  
JATETXEA

IGANDETAN  
ZABALIK!!

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

Osasuna

**Arnasa hobeto hartzeko tiritak**

- Azkenaldian modan jarri dira arnasa hobeto hartzeko tiritak. Non eta noiz hasi ziren erabiltzen?

- Estatu Batuetatik datorren moda da eta han rugbyko jokalaria izan ziren tiritak horiek jartzen hasi ziren lehenak. Ondoren, Europan, Bost Nazioetako Rugby Txapelketan erabiltzen hasi ziren eta hona Getxoko rugby taldearen entrenatzaileak ekarri zuen orain hilabete batzuk. Ordutik, gero eta gehiago zabaltzen ari da tiriten erabilera eta Eurokopan zeresan asko eman dute, ekipo gehienek erabili dituztelako.


- Nolakoak dira tiritak?

- Plastiko gogor xamarreko laminez osatutako bi tira dira eta sudurrean jarrita sudurzuloak dilatzen, zabaltzen dituzte arnasa hartzeko airearen sarrera errezteko. Egindako lehen ikerketen arabera, airearen sarrera % 31n hobetzen da tiritak hauekin. Sudurrean, kanpotik jartzen dira (adhesi-

boak dira) eta tiritak sudurreko aletak piskat igotzen dituzte.

- Egokiak al dira edozein kiroletarako?

- Gauza berria denez, oraingoz ez dago datu askorik baina erresistentzia aerobikoa eskatzen duten



**JOSEAN IÑARRA**  
(INEFen lizentziatua)

kiroletarako egokiagoa da. Korrika egiteko, futbolerako, txirrindularitza (nahiz eta Tourrean hainbeste ez erabili) eta horrelakoetarako erabiltzea aproposagoa da. Igerike-

tarako, berriz, ez da erabilgarria igeri egiteko arnasa ahotik hartu eta sudurretik botatzen dugulako.

- Beste erabilpenik badute?

- Ba kuriosidade bat esango dizuet. Azken ikerketek diotenez zurrunka egiten dutenen soluzioa izan daiteke, hartzen dugun aireak tiritekin oztopo gutxiago gutxitzen du eta. Zurrunka egiten dutenek, tiritekin, hobeto hartzen dute arnasa eta zurrunkak gutxitu edo erabat desagertzeko balio dezakete.

- Non erosi daitezke?

- 3M Breathe Right izeneko enpresak komertzializatu ditu eta farmazietan eta espezializatutako dendetan saltzen dituzte. 9-10 eta 10-12ko paketeak daude eta pakete bakoitzaren prezioa 800-1.000 pezetakoa da. Entrenamendu edo partidu bateko iraupena daukate, behin erabiliz gero bota egin behar dira eta. Ez dakit oraindik Bergaran saltzen diren, baina uste dut hona ere berehala helduko direla.

Normalean orain arte ekipotako kirolean erabiltzen dira baina fisioterapeutak eta entrenatzaileak orain ari dira aztertzen tiritak zer nolako abantailak ematen dituzten.

**"Lehen ikerketen arabera arnasa hartzeko ahalmena % 31n hobetzen da tiritak hauekin"**



Zenbait kirol hobeto egiteko balio dute tiritak.

**ONENA**

**TINTATEGIA**

Barrenkale, 29 BERGARA



**Sugoi**

**ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA

# BERGARAKO OSASUN gida

## ■ ALBAITARIAK:

|   |                          |            |
|---|--------------------------|------------|
| • ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)                     | Mobila: 908 77 17 32     | ☎ 76 43 29 |
| • ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAICO ALBAITARI OFIZIALA)        | Mobila: 908 77 17 32     | ☎ 76 43 29 |
| • IRASTORZA BENGEOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)              | Iribar baserria ANTZUOLA | ☎ 76 63 46 |
| • NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47 | Koldo Eleizalde, 28      | ☎ 76 27 97 |

## ■ ANALISI KLINIKOAK:

|                  |                  |            |
|------------------|------------------|------------|
| • LABORRA ISABEL | Oxirondo 4, 1. B | ☎ 76 32 06 |
|------------------|------------------|------------|

## ■ BARNE MEDIKUNTZA:

|                   |                  |            |
|-------------------|------------------|------------|
| • IRIGOYEN VICTOR | Oxirondo 4, 1. B | ☎ 76 32 06 |
|-------------------|------------------|------------|

## ■ DENTISTAK:

|   |                              |            |
|---|------------------------------|------------|
| • ASTIAZARAN SOLOZABAL  | Iparragirre, 1 behea         | ☎ 76 27 95 |
| • BERGARA HAGIN KLINIKA                                       | Bidekurutzeta 6, 2           | ☎ 76 05 77 |
| • GOROSABEL J. ALBERTO  | Fraiskozuri 5, behea         | ☎ 76 56 88 |
| • IRIARTE IDOIA   | Artekale 1, 1. C             | ☎ 76 01 65 |
| • SUDUPE FELIPE   | Matxiategi 18, behea ezkerre | ☎ 76 07 66 |
| • GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. | S. Arrieta 3, 2. B           | ☎ 76 38 54 |

## ■ FISIOTERAPEUTAK:

|   |                    |            |
|---|--------------------|------------|
| • ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL) | Masterreka 7, 4. C | ☎ 76 43 71 |
|---|--------------------|------------|

## ■ GINEKOLOGOA:

|                    |                     |            |
|--------------------|---------------------|------------|
| • SERRANO DOKTOREA | Ramon Maria Lili, 2 | ☎ 76 59 39 |
|--------------------|---------------------|------------|

## ■ MASAILARIAK:

|                           |                         |            |
|---------------------------|-------------------------|------------|
| • AGIRREZABAL JOSE JABIER | Boni Laskurain 1, 2. A  | ☎ 76 15 74 |
| • AZPEITIA IRUNE          | Agorrosingo igerilekuak | ☎ 76 20 51 |
| • CASANELLAS JABIER       | Boni Laskurain 5, 2. E  | ☎ 76 03 78 |
| • MARTINEZ LUIS JABIER    | Masterreka 7, 3. A      | ☎ 76 51 18 |

## ■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

|                           |                         |            |
|---------------------------|-------------------------|------------|
| • ARCINIEGA JULIO         | Boni Laskurain 3, 1. B  | ☎ 76 37 50 |
| • OXIRONDO KONTSULTATEGIA | Boni Laskurain 2, behea | ☎ 76 20 50 |

## ■ PEDAGOGOAK:

|  |                       |            |
|--|-----------------------|------------|
| • IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA) | Simon Arrieta 3, 2. E | ☎ 76 26 42 |
|--|-----------------------|------------|

## ■ PODOLOGOAK:

|                     |                     |            |
|---------------------|---------------------|------------|
| • ALTUBE EDURNE     | Simon Arrieta, 2    | ☎ 76 07 84 |
| • AZPIAZU ARANTZAZU | Herri Lagunak, z/g. | ☎ 76 41 32 |

## ■ PSIKIATRA:

|                    |                                |            |
|--------------------|--------------------------------|------------|
| • GALLASTEGI PABLO | San Martin Plaza 2, 1. ezkerre | ☎ 76 26 64 |
|--------------------|--------------------------------|------------|

## ■ PSIKOLOGOAK:

|   |                     |            |
|---|---------------------|------------|
| • PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA) |                     | ☎ 76 14 80 |
| • URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA)  |                     | ☎ 76 53 13 |
| • ZUBILLAGA, ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA)                               |                     | ☎ 76 30 76 |
| • FERNANDEZ J.R.  | Ramon Maria Lili, 2 | ☎ 76 59 39 |

# Bi gurpiletan

## Txirrindularitzan buru-belarri

Tourra pil-pilean dagoe-nean erraza da nostalgikoren baten ahotsean Jexus Aranzabal edo Migel Bengoa txirrindulariei buruzko goraipamenen bat entzutea; horrelako egunetan Juantxu Asula 63an Lambrettan egindako Vuelta a España hartaz sekula baino gehiago akordatzen da; Angel Bideluzek edozer gauza emango luke Tourrean motorrez joatearren; Julian Portuk ez du etaparik galtzen; eta Jesus Murgizu Pirinioetako etapak ikusteko planak egiten ari da.



Migel Bengoa, Bergaran izan diren bi profesioaletako bat, Xanti Aiausti antzuolarra atzetik duela.

**E**urokopak bizikletari eman dio lekukoa. Urtero bezala, uztaillarekin batera Tourra etorri zaigu. Taberna eta egunkarietako porrez gain, telebistan ia ez da beste kirol irudirik, jendearen arteko berriketaldietan Indurainen pajara eta ondorioek komentario ugari sortu dute... Nahi ez duenarentzat ere denean dago Tourra, denean dago bizikleta.

### Bi denboraldi KASen

Migel Bengoak nahia-

go du Tourra telebistaz ikustea, zuzenean ikusi ahal izateko bizpahiru lanegun galdu behar baitira, eta telebistaz gehiago ikusten delako. 49 urte ditu, eta 72 eta 73ko denboraldietan korritu zuen profesioaletan KAS taldean. Fuente, Lasa, Lazkano eta Linaresen sasoiakoa da. Afizionatuetan urteko 20 bat karrera irabazten zituen, mundialeetan ere korritu zuen eta horrek profesioaletara igotzeko aukera eskaini

zion, "sasoi hartan 3 ekipa besterik ez zeuden, urtean afizionatuetatik 3 bat pasatzen ziren profesioaletara. Estatuan 60 bat txirrindulari ginen, eta zaila zen postu bat lortzea".

Migelek sekula ez du ahaztuko profesionalen debutean gertatutakoa: "Vuelta a Andalucian Manuel Galera esprintatzen ari zela erori, eta neure aurrean hil zen desnukatuta". Halere, baditu oroimen polit askoak

ere. "Zarautzen afizionatuetako karreran nagusi izan nintzen maila guztietan, tarteko helmugak, mendia, karrera..."

Sasoi hartan txirrindulariak ez zeuden ondo ordainduta, representante lanetan hasteko aukera sortu zitzaion, eta harrezkero lan horretan dihardu. Halere, sekula ez du txirrindularitza laga. Bizikletaz ibiltzeaz gain, 1988 eta 1989ko denboraldian Gipuzkoako selekzionatzailea izan zen.

### TOKI-ONA

#### Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak  
Kazolaxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

### Masterreka 24

Nepal, India eta Hego  
Amerikako jantziak

Masterreka, 24 BERGARA

### DENA

# 100etik

ZURE OPARIENTZAT

Simon Arrieta, 3

Migel Bengoak izan zuen idolorik, herritarra gainera, Jexux Aranzabal.

**Aranzabal idolo**

Aranzabalek badaki askoren idolo izan dela eta oraindik ere badela, baina berak apal-apal, sasoi hartan beste ezer ez zegoelako dela dio. "Gaur egun eskaintza zabalagoa dago eta desberdina da. Rikardo Iturbe, esaterako, oso afizionatu ona izan da eta ez du hainbeste sona lortu; nire ustez horregatik da".

Oraindik ere jendeak lortutako garaipenak gogorarazten jarraitzen dio: "lebengoan rekorte batekin etorri zitzaidan neska bat, amak etxean aurkitu zuela eta. Orain dela gutxi bildumazale baten eskutitza jaso dut: txirrindulari txapeldunen autografoak batzen ari dela eta, nire sinadura eskatzen dit; bide batez, Otaño eta Lasaren belbideak ere bai".

Oraindik idolo izatea lehenengo afizionatuetan, eta 1966 eta 1972 bitartean (Ocañaren, Perurenaren eta Errandonearen garaian) profesionaletan Fagor eta Bic taldeetan lortutako garaipenei zor die. Berez ez zen taldeko liderra, luxuzko laguntzailea baizik: "ona bazara, nahiz eta inorentzat lan egin, nabarmentzeko aukera izaten duzu". Urtean pare bat

karrera irabazten zituen, Andaluziako itzulia, Portuetakoa, Mallorkakoa eta Kataluniakoa, esaterako, irabazita ditu. 100 kilometroko marka ere berak du. "Ondoen ibili nintzen urtea 67a izan zen, baina ezer ez nuen irabazi. Tourrean 2., 3., 4. eta 7. egin nuen urtea izan zen".

**Azken urteak gogorak**

Aranzabali ilusiorik handiena Portugaleko itzuliko etapa bat irabazteak egin zion: "goizeko 9etan seme nagusia jaio zen, 11etan Portugalera abiatu ginen, eta etapa irabazi nuen. Semeari eskaini nion, gero beste etapa bat ere irabazi nuen". Oroimen txarrak borratuta dituela dio: "gauza bat hainbeste gustatuz gero sufrimendu eta momentu txarrak abaztu egiten dira. Berriz jaioko banintz berriz txirrindulari izango nintzateke, duda barik, gainera orain dudan esperientziarekin... Gainera gaur egun prestakuntzari eta elikadurari buruzko orientazio ona dago, orduan dena norberaren kasara egiten zen, inolako laguntza barik".

Jendeari pena ematen dio 70ean 15 segundugatik Euskadiko itzulia ez irabazi izanak, berak, ostera, 71ko Espainiako txapelketa du gogoan: "irabazita nuen, eta banka

sartze bategatik ez nuen atera, pena izan zen". Aranzabalek 72ko denboraldia izan zuen azkena. "Azken urteak dira gogorak, basieran ilusioz eta afizioz zabilta, baina azkenean diruagatik, kontratuei begira bizi zara. Ordurako Maxim's zabaldua nuen, eta jarraitzeko aukera izan arren, korritzeari laga egin nion". Laga ostean Aranzabalek ia ez zuen karrerarik ikusten, "gaiz-

ki pasatzen nuen, oso urduri jartzen nintzen, asko sentitzen nuelako; gainditzea kostatu egin zitzaidan. Gaur egun, ostera, jarraitzen dut txirrindularitza; Tourrera, Pirinioetara, urtero joaten naiz. Ikaragarria da Tourra, zuzeneko momentu batekin arratsaldea telebista aurrean pasatuta baino gehiago gozatzen duzu. Ezagunekin egoteko aukera ere izaten dut: Perurenare-



Aranzabal askorentzat idolo izan da, eta oraindik ere bada.

**ANTIA**  
**HARATEGIA URDAITEGIA**  
 Txahal, idi, txerri, bildots,  
 untxi eta baserriko oilaskoak.  
**Matxiategi ☎ 76 15 09**

Industria hornikuntzak **U** Industriaren alde  
**UNIFE**  
**MEMESA S.L.**  
 Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 76 47 89  
 Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

**FERNANDEZ**  
  
**Oihal puskek Oihalak**  
 San Antonio, 3 ☎ 76 22 93  
 Ibargarai, 2 ☎ 76 53 22

kin, Minguezekin, Etxe-barrirekin... Orduko askok jarraitzen dute zuzendari eta mekaniko. Urtean behin erretiraturako txirrindulariok ere bazkaria egiten dugu".

### Tourra zuzenean

Bizikletazaleentzat Tourra zuzenean ikustea baino ikuskizun handiagorik ez dago. Bergararik asko dira urtero bai Alpeetara bai Pirinioetara joaten direnak. Juan Luis Arregi eta lagunak aurten ere ez dute kale egin, eta Alpeetatik iritsi berri dira. "hotz handia egin du. Aurten txirrindulariekin hitzegiteko aukerarik ez dugu izan, baina hotelean ikurriñarekin-eta geundela Brescialat taldeko masajista etorri zitzaigun ea euskaldunak ginen galdezka; bera durangarra da".

Juan Luis Arregik datorren astean Pirinio aldera joateko asmoa du, txirrindulariak gertutik ikusteko. Ea oraingoan eguraldiak laguntzen duen.

Jesus Murgizu, lantegian baimena lortzen badu, aurten joango da lehen aldiz. "Lourdes aldera kotoxez joango gara, eta mendira bizikletaz igoko gara. Bi etapa ikusiko ditugu". Betidanik izan da bizikletazale. "15 bat urtean nabil bizikletan, beti zikloturismoa egiten; lehen urtero 14.000 kilometro inguru egiten nu-

en, nobixia dudanetik gutxitxoago".

Afizionatuen eta profesionalen karrerak ikustera ahal duen guztietan joan izan da. "Jokin Mujikaren jarraitzaile eta antigorospista izan gara beti. Garai bartan basi ginen karrerak ikustera joaten".

### Lokatzen lanean

Julian Portu ere makina bat karrera ikusi, jarraitu eta korritutakoa da: "14 urterekin basi nintzen. Ez nuen profesionalerara pasatzeko aukerarik izan, baina gustora korrituko nuen. Dena den, lehen zenbait karrera afizionatuek eta profesionalak batera korritzen genuen: Arantzazú

eta Arrateko igoerak, Bergarako Pazkuetakoa, Oñatiko ziklo krossa...".

Konpetizioa laga ondoren ere bizikleta gainean ibiltzen jarraitu du: "orain dela gutxi arte 2.000 kilometro egiten nuen urtean; aurten arte, urteberri egunean, eguraldia eguraldi, Arantzazura joaten nintzen". Lokatza berarekin hasi zen. 12 bat urtean ibili da, gaur egun, beste batzuen artean, Jose Mari Gabilondo dabil bertan. Txikiekin ibiltzen da, kirol eskolakoekin eta infantilekin, eta batzordean ere badago. Jose Marik hemen inguruko karrerak ikusten ditu. "Profesionalenak ez zaizkit asko gustatzen, bertan sartuta ez dagoenak ez baitu

gauza asko ikusten; txikiek interes handiagoa jaritzen dute; Tourra zuzenean ikusteko tentaziorik ez dut, mobida bandediegia da. Nabiago dut lan egin, eta mutikoak aurrera ateratzea".

Jose Marik Euskadiko itzulian eta Klasikan pankartak ere jartzen ditu. "Erantzunkizun handia da, askotan arriskutsua ere bai. Errepide nazionalan kamioi handiak ibiltzen dira, askotan baizea etsai izaten dugu eta tuboak erori edo pankarta apurtzen bada, arriskutsua izan daiteke".

### Motorrez kamararekin

Euskadiko itzulian ibiltzen den beste lagun



Aurten ere, kale egin barik, Alpeetan izan den koadrilla, Les Arcs-eko helmugatik gertu.



DEBA  
**GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Deco-Textil  
**ZANGITU**

Etxerako lantzeria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

**KONDE**



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A



Juantxu Asula 63an Espainiako Itzuliko karabanan Lambreta gainean. Angel Bideluze ETBko kamararen motorista.

bat Angel bideluze motorista da. "ETBko kamara bat eramaten dut, eta besteak beste, Euskadiko itzulian, Euskal Bizikletan, Urkiolako igoeran eta Donostia klasikan ibiltzen naiz. Orain dela 4 urte hasi nintzenetik ziklismoa gehiago gustatzen zait". Kanpotik primeran pasa behar dutela eman arren, Angelek dio ez dutela lan erraz; kamararen zein errealizado-rearen aginduak entzuten eta betetzen joaten dira. "Tentsioan ibiltzen gara: 10 metroko distantzia gorde behar dugu; txirrindulariaren ondoan joan gaitezke, baina aurrerago ez, bizikletaren abiadura mantendu behar dugulako. Aurrerago joaten bagara epaileen bronkak entzuten ditugu". Ez du sekula istripurik izan, baina kontuz ibili behar dutela dio. "Txarrena kale arteko azken sprinta, euria egiten duenean zebra bideak eta zuriz margotutako uneak dira, labandu egiten garelako". Angel sekula ez da ibili Tourrean, baina ez du telebistan ikusteko aukerarik galtzen. "Oraintxe bertan

joango nintzateke. Beti motorraren lanarekin fikatzen egoten naiz. Alde handia dago motoristen artean, frantsesak dira onenak. Tourrean gauza batekin nago moskeatuta: ez dakit nola enfokatzuten duten kamerek, izan ere, kamara mugitzen denean behealdean piloto laranja ikusten baita".

### Lambretan

Angel motorrek botatzuten duten beroaz kexatzen da, "poliki ibiltzen garenez, bero handia botatzen digute banketara; beroarekin gaizki samar ibiltzen gara. Hala ere, benetako meritua dutenak Espainiako itzulia Lambretaz jarraitu zuten Juantxu Asulak eta dute". Juantxu, beste bost lagunekin batera, 63ko itzulian ibili zen Lambreta motorren publizitatea eginez. "Egunero 200dik gora kilometro egiten genuen, jipoi gogorra!


Kontuan hartu behar da orduan ez zegoela gaurko biderik, zulo asko zeudela, eta abar". Oso oroimen polita du Juantxuk itzuli hartaz. "Nik Valentzia, Tarragona, Gijon eta beste leku piloak ez nuen ezagutzen; bazterrak ikusteko eta jendea ezagutzeko aukera eman zidan karrerak. Akordatzen naiz Madrileran San Isidro bezperan iritsi ginenean antolatzaitako batek Moulin Rougera eramán gintuela. Ikustekoa zen hainbeste pajarita, frac eta sonberoren artean guk genuen itxura: praka grisak, zapatillak eta jertsea bizkarrean. Denak guri begira genituen. Hango txanpanak eta monterkristoek ez zuten akaberarik! Oso ondo tratatu gintuzten. Terriblia izan zen". Txaskoak ere hartu zituen Juantxuk: "Anquetil zen nire idoloa, autografo eske joan nintzaion, baina ez zidan eman, inori ez zion

ematen; desprezio aurpegiarekin begiratzen zuen gainera. Desilusio handia hartu nuen Anquetilekin".

Baina, duda barik, ezusterik handiena prentsarekin izan zuen: "helmugara iritsi, eta kazetariak txirrindulariei egindako elkarrizketatik ezer ez zen agertzen burrungo eguneko egunkarian, dena aldrebes jartzen zuten. Horrek sutan jartzen ninduen. Orduan konturatu nintzen Bahamontes eta Loroñoren arteko harreman txarra prentsak asmatutakoa zela, jendea berotzeko zela. Nik afizio handia nuen, eta etxean egunkarietako rekorte pila nuen. Etxera bueltatu nintzenean, hain baserre nengoen, denak bota nituen: Coppi eta tubularrak txorixuen moduan lepotik zintzilik, eta denak. Orain penaz naiz. Indurain arte ez dut jarraitu txirrindularitza".

**"Berriz jaioz gero, txirrindularia izango nintzateke. Momentu txarrak eta sufrimenduak ahaztuta ditut". JESUS ARANZABAL.**

## Euskal Herrian pakea lortzeko oztoporik nagusia zein da zure ustez?



**Juan Mari Iturbe**

Denak akordio batera heltzea komeni da eta ezin da ezer inposatu. Biolentzia asko dago eta hor dago arazorik haundiena.



**Jose Manuel Alberdi**

Jendeak bere alde egiten du eta ez du kontuan hartzen bestearen iritzia. Guztion artean errespeto gehiago egon beharko litzateke.



**Tere Garamendi**

Nire ustez Gobernua, bai hango Gobernua eta baita hemengo ere. Eta pentsatzen dut batzuei egoerak berdin jarraitzea interesatzen zaiela.




**Jovita Fernandez**

Ez dakit, nekeza da galdera horri erantzutea. Baina guztiok borondate gehiago jarriko bagenu beharbada hobeto egongo ginateke.



**Amaia Unamuno**

Jendea oso burugogorra da, tolerantzia pixkat botatzen dut faltan. Albokoaren iritzia errespetatzen ikasi behar dugu.



**Jose Sanchez**

Ez dakit, oztopo asko dago bai alde batean eta bai bestean. Oztopo konkretu bat barik oztopo asko ikusten ditut.

**POL-POL**  
Taberna  
☎ 76 07 78

**ARREGI**  
**Eraikuntza**  
**materialeak**  
Billegia Tellerian, Labegaraletan.  
Tfnoa: 76 27 93

**SIRIMIRI**  
*jatetxea*  
PINTXO BEROAK,  
EGUNEKO MENUA, KARTA.  
Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

**AGOITZ**  
**Tapizdenda**  
San Lorentzo, 25 BERGARA  
Tfnoa: 76 18 23

**iRUDI**  
**Erlojudenda**  
**Bitxitegia**  
Ibargarai, 2  
☎ 76 51 65





## Aldrebeskeriak

Bergarako Txapa, Elgoibarko Zazpiki, Oreretako Zintzilik, Ondarroako Radixu, Hernaniko Molotoff, Gasteizko Hala Bedi eta beste zortzi irratik (guztira 14) osatzen dute Euskal Herriko irratik libreen multzoa. Hala ere, betidaniko lege mailako eta arazo ekonomikoak medio, hainbat irratik desagertu egin dira. Bizirik dirautenen xedea eta helburua komunikabide alternatiboak kontrainformazioa eta ohiko medioetatik kanpo gelditu izan diren taldeei hitza ematea izan da. Irratik libreek, betidanik ideologia propio bat izan dute. Informazioaren bitartekarien manipulazioa deuseztea eta irratik emandegiek izkututzen duten informazioa ematea izan da irratik libreen helburu nagusietariko bat. Erabiltzen den materiala, normalean beste irratik batzuek soberan dutena izaten da, bigarren eskuko materiala hain zuzen, eta hizlariak ez dira inondik inora profesionalak.

Aspaldiko mugimendu da. 1918. urtean esaterako, Alemanian, Kaise-ak abdikatu ondoren, irratik libreek paper garrantzitsua izan zuten langileak koordinatzeko eta harremanak sendotzerako orduan. Hau guztia eta gehiago kontutan izanda, merito haundiko lana gutxi baloratzen dela uste dut. Denbora luzea behar izaten da programazio dextentea gertatzeko eta normalean oztopoak besterik ez dira izaten. Bergarako Txapa Irratia desagertzeko zorian izan da behin baino gehiagotan, honela izango balitz Bergaran dauden komunikabideetatik bakarra geldituko litzateke. Inguruko herriak gero eta aurreratutago dauden bitartean, udal irratiak, telebistak... sortuz, Bergaran irratik libre bat mantentzeko ere kinka larrian gabiltza. Panorama ederra.

**Aitziber AZKONDO**



## Pastoralak hemen?

Pastoralak hitza bera, lehenbiziko aldiz entzun genuenean, soil-soilik eleizako zerbaitek zelakoan geunden. Hemen hegoaldean ez genuen horrelakorik ezagutzen. Ondoren Iparraldeko kultur ekintza bat zela jakin genuen. Eta astiro-astiro, entzunaren puruan Pastoralaz ongi jabetu ginen.

Uda parteko ekintza bat da. Zuberoa du bere kokagune naturala. Aurten ere Euskal Herriko lurralde zoragarri horretan egingo da kultur ekintza paregabea.

Forma beti berdina. Antzezten duten pertsonaia beti berria. Antzezleak ere bai. Aurtengo edizioan, Sabino Arana izango da Garindainen antzeztuko den pastoralaren protagonista. Mauletik hurbil dagoen herri honek 600 biztanle besterik ez ditu. Honek esan nahi du, ia guztiek parte hartuko dutela antzeztan honetan.

Aipatu gizon ospetsuari buruzko pastoral honen testua Allende Agergarai-Bordatxar idazle eta ikertzaile ospetsuak idatzi du. Pastoral hau Garindainen bertan estreinatuko da uztailaren 21ean. Egun honetan ezin baduzu joan beste aukera bat eman dizue abuztuaren 4ean.

Herri osoa bihurtzen da antzezle. Urte oso horretan dihardute eta berebiziko famili giroa sortzen da herritar guztien artean.

Gure galdera da: guk, hemen, bailara honetan, ez al dugu horrelako gauza bat egiteko tentaziorik? Egokia litzateke, besterik ezean, zuzenean ezagutzea eta horretarako bidaia eratu eta joan eta ikusi. Seguru ondoren antzerako zerbaitek egiteko irrika erneko zaigula.

**Andres OSA "SAKONA"**

**IZADI** PILI GISASOLA

Zurradero, 2  
behea.  
☎ 76 58 83

**Santiveri**

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua

**IGARZA**

**MERZERIA  
LENZERIA**

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

**TABERNA  
ZAHARRA**

*Jatetxea*

bazkari eta  
afariak

**Tfnoa: 76 21 21  
ANGIOZAR**


**SUBIJAI**

**Gazteentzako moda**

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

**ITXASMENDI**

**ERREKADISTA**



Barrenkale, 36  
BERGARA

☎ 76 50 64 / 76 13 61

EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,  
ARETXABAETA, ESKORIATZA eta OÑATIRA.

■ **Orfeoia garaile**

Bergarako Orfeoia **San Vicente de la Barquerako Kantu Marinelen XXIX. lehiaketa** irabazi zuen igandean. Bergarako Orfeoiko 46 kidek *Cuando voyas a San Vicente* abestu behar izan zuten eta, horrez gain, *Axuri beltza* (Javier Busto), *Soule* (Javier Belloportu) eta *El mediodia* (Juan Jose Falcon) eskeini zituzten. David Azurza tolosarrak zuzentzen duen abesbatzak Urrezko Marinela eta 200.000 pezetako saria jaso zuen. Era berean, ikusleek emandako sari berezia lortu zuen Bergarako Orfeoia. Epaimahaia lehiaketan parte hartu zuten Estatu osoko 8 abesbatzen maila altua azpimarratu zuen.

■ **San Martzialen**

Joan zen ostiralean **Jubilatuen Egoitzakoek** San Martzial eguneko jaia errepikatu zuten. Meza entzun ondoren, hainbat joku izan zituzten eta jarraian 80 bat lagun bildu ziren bazkaltzeko. Elgetako trikitilariek alaitu zuten bazkalostea.

**Musika Eskolakoek**, bestalde, San Martzial Txiki ospatu zuten domekan San Martzialen. Eguraldiak ez zien lagundu baina, hala ere, ez zuten atzera egin eta egun ederra igaro zuten.



■ **Burgostarrei irabazi**

Igandean, argazkian agertzen den herriko lagun kuadrilak, Mirandako lagun batzuen kontrako futbito partida jokatu zuen **Mirandan**.

Bergarrek 5 eta 3 irabazi zieten burgostarrei. Partiduaren ondoren bi taldeetako jokalariek bazkaria izan zuten Ribavellosan. Orain arte jokatutako bi partiduetan bergararrak nagusi izan dira eta irail aldera Mirandakoak garaipen gosez etorriko dira Bergarara. Udan gogor entrenatu beharko dute...



**ETXEBERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

**MUGICA**  
GOXOTEGIA



- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

Artekale, 3  
☎ 76 10 34


■ **Bergarako artistak nonahi**



Bergarako lau artistak erakusketak zabaldu dituzte Euskal Herriko hainbat herritan. **Santi Arrietaren** eskultura eta zeramika lanak izango dira ikusgai Ondarroako Udal erakusketa aretoan datorren uztailaren 14ra arte. Guztira, 30 lan ditu Arrietak Ondarroan. **Fernando Arenazak**, berriz, Donostiako Le bistro des arts erakusketa aretoan ditu erakusgai bertako

etxe-estudioan egindako azken margoak. Arenazaren erakusketa uztailaren 24ra arte izango da zabalik. Bestalde, **Luis Laskurain** margolariaren erakusketa Aretxabaletako Durana aretoan izango da ikusgai gaurtik uztailaren 21era bitartean. Eta azkenik, **Abdon Juaristiren** margoak Hondarribiko Kokoschka arte galerian izango dira datorren abuztuaren 8ra arte. Egiten duen eguraldia ikusita, turismo artistikoa egiteko aitzakia ezin hobea...

**Zertan dihardute ba?**



**Martin Gallastegi**

86 urteko bergararrak, Euskal Herriko beste 9 kazetarirekin batera, omenaldia jaso zuen aurtengo Rikardo Arregi kazetaritza lehiaketako sari banaketan. Epaimahaiak euskal prentsaren aintzindarien lana goraiatu zuen. Martin Gallastegik gerra garaian *El dia* eta *Euzkadi* egunkarietan eta *Eguna* astekarian idatzi zuen. Moiualde baserrikoa izatez, Gallastegi Zarautzen bizi da gaur egun. Bere hitzetan, *"idazteari laga diot baina publikatu gabe dauzkadan lanak argitaratuta ikustea gustatuko litzaidake"*.

■ **Gora San Fermin!!**



Aurreko urteetan bezala, udalekuetako haurrek San Fermin eguna ospatu zuten astelehenean. Aurten 3 urtetik 13 urtera bitarteko 188 haur ari dira **Xipizaro ludotekak** antolatutako udalekuean eta astelehenean, txuri-

gorritz jantzita, Seminarioko patioan bildu ziren zezenen aurrean korrika egiteko. Antza denez, hauek ez diote beldurrik zezenari...

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atekak, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**



Erakusketa: Masterroka 14, behea BERGARA  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30



**Gaspar**

**JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF-SERVICE-A**

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

# Bilaitz Marzan

**16 urteko gazteak BBBko 2. maila bukatu du eta oportretan dago. Futbitoko Blue Star taldekoa, mendian ibiltzen da eta Xamatz dantzataldeko txistularia da. Duela gutxi hasi da danbolina jotzen, baina nahastu egiten da, zail samarra egiten zaio biak batera jotzea.**

**- Zer da oportretan gustokoen duzuna?**

- Ezer ez egitea, eta lagunekin egotea.

**- Zenbat ordu lo egiten duzu?**

- 9 bat ordu, ez naiz bereziki lotia.

**- Futbola ala txirrindularitza?**

- Futbola jolasteko, txirrindularitza ikusteko.

**- Guerrero ala Aranzabal?**

- Aranzabal, Guerrero Athleticekoa da.

**- Futbolari profesionala izango zinateke?**

- Aukera izanez gero bai.

**- Xakea kirola da?**

- Ez, denborapasa.


**- Igo duzun azken mendia?**

- Hiru Erregeen Mahaia. Zailena.

**- Txistua ala txirula?**

- Txirula zailagoa da, putz asko egin behar da.

**- Txistua ez da soinua bezala taldeetan integratu.**



*“Txirula txistua jotzea baino zailagoa da, putz gehiago egin behar delako.*

*Futbola jolasteko gustatzen zait, txirrindularitza, berriz, ikusteko. Txilioak egitea da desahogatzeko modurik onena”*

- Jendeak behar bezala apreziatzen ez duelako.

**- Zein eratako txisteez ez dizute graziarik egiten?**

- Emakumearen kontrakoak.

**- Zein usain gorrotatzen duzu?**

- Puzkar usaina.

**- Sekula argazkirik puskatu duzu?**

- Ez, albumean ez ditut sartzen, aparte lagatzen ditut.

**- Haundi egiten zarenean zer izango zara?**

- Fisioterapeuta izatea gustatuko litzaidake.

**- Zein hizkuntza ikastea gustatuko litzaizuke?**

- Alemana.

**- Egutegiko datarik gorrotagarriena?**

- Inuxente eguna; niri besteek bromak egitea ez zait gustatzen, nik besteek egitea bai.

**- Ogia ala azukrea kentzea nahiago?**

- Ogia, azukredun gauza gehiago dago.

**- Azkenengo ikusi duzun filmea?**

- Mi padre Kelly.

**- Desahogatzeko modurik onena?**

- Txilioak egitea, amari egiten dizkiot.

**- Euskal hiriburu bat?**


- Donostia, beti gustatu izan zait.

**- Abererik bai etxean?**

- Arrain bat. Ez du lanik ematen; jana bota eta ura aldatu behar zaio.



Bizkaia Etorbidea, 1  
etxabea



Tfnoa: 77 14 24

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**ETXEBIZITZA**

**Pisua** alokatzen da Fuen-girolan. ☎ 76 05 37.

**Iruñean** pisua osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 17 14 (gauzez).

**Pisua** salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 09 37.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 43 22.

**Ganbara** bat behar dut bizitzeko. ☎ 76 39 65.

**Pisua** salgai Bolun. 100 metro karratu. ☎ 76 22 72.

**Pisu** bat konpartitu nahi dut. ☎ 76 08 00 (Ismael).

**Estudioa** alokatzen dut Benidormen. ☎ 76 23 43.

Berriztutako **ganbara** San Pedro kalean salgai. ☎ 76 24 05.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

**Garajea** salgai Boni Lascurainen. ☎ 76 47 67.

**Pisua** salgai Frontoian. 160 m<sup>2</sup>. ☎ 76 24 42.

**Osintxun** buhardilla bat salgai. ☎ 76 15 36.

**Baseria** salgai Elgetan. ☎ 12 09 67/12 71 10.

**Pisua** salgai Mugertzan. ☎ 76 53 79.

**Pisua** alokatzen da Zubiaurren. ☎ 76 13 85.

**DENETARIK**

**Olivetti** fotokopiadora salgai. ☎ 76 51 23 (gauzez).

**Denda-remolkea** salgai. ☎ 76 37 82.

**Hiru** gelako kanpina erosi-ko nuke. ☎ 76 41 28.

**Zaldi** bat konpartitu nahi duzu? ☎ 76 30 01 (Rene).

**Imar** denda-remolkea salgai. ☎ 76 58 62 (gauzez).

**Ford Fiesta** kotxea salgai. Egoera onean. ☎ 76 33 26.

**Erloju** bat galdu dut. Mari Lurdes izena eta fetxa batekin. ☎ 76 32 95.

**Imar** karro-denda salgai. 190.000 pezeta. ☎ 76 59 56 (gauzez).

**Ohe** artikulatu automatiko berria salgai. ☎ 76 37 24.

**Nissan** Vanette (SS-AK) salgai. ☎ 21 18 55.

**Mendiko bizikleta** salgai. ☎ 76 51 55.

**Sofa** bat salgai. 20.000 pezeta. ☎ 76 64 71.

**Kawasaki** motorra (SS-AJ) salgai. ☎ 79 48 14.

**Sango** denda-remolkea salgai. ☎ 76 33 92.

**Ford Sierra** kotxea (SS-AD) salgai. ☎ 76 33 10.

**LANA**

**Ingeniaritza** ikasleak klaseak ematen ditu. ☎ 76 11 11.

**Mate** eta fisika klaseak ematen ditu. ☎ 76 47 85.

**Ingeles** klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 04 65.

**OHO** eta ingeles klaseak uztailean (goizez). ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Abuztuaren** 15etik 30era esperientziadun neska bat behar da Peñiscolan haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 57 32 (gauzez).

**OHO** eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

**Kamarera** bat behar da. ☎ 76 23 71.

**OHO** klaseak ematen ditut. ☎ 76 24 42 (Amaia).

**OHO**ko 1.go mailatik 5.era klaseak ematen ditut uztailean. ☎ 76 45 51.

**Emakume** euskalduna behar da haur bat zaintzeko. ☎ 76 02 59.

**Etxeko** lanak egin eta haur bat zaintzeko neska euskalduna behar da. ☎ 76 06 69.

**Neska** batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 13 46.

**Kimika**ko 5. mailan ari den ikasle batek lan egingo luke. ☎ 76 20 04.

**Emakume** euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 30 20.


Erakusketa eta salmenta: Labeaga kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urretxu

**LENIZ ALUMINIOAK**


Bi orriko atea

*Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.*


Bi orriko leihoa



Orri bateko atea: 73.000 pzta.!!!





**L**eihoen neurria zure beharretara egokitzen dugu. Mota guztietako leihoak ditugu: poliuretanoa, aluminioa, apurketa termikoa...



Orri bateko leihoa: 54.000 pzta.!!!

**Oharra:** Prezio hauetan instalazio osoa sartzen da.

# BONOFOTOA



## Aitor Mujika

**Aitor Mujika** jaso du BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako eta ondoren egindako zozketan bere txartela atera delako. Argazkietan agertzen ziren iturriak herriko zein tokitan dauden galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Matxiategi kalea eta Simon Arrieta plaza zen**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Aitor Mujika**rentzat izan dira. Zorionak!!

**Zein da argazkian agertzen den kalearen izena eta zein egunetan ospatzen dituzte auzo horretako jaiak?**

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara

## Ipintzako Adin Mugarik Gabeko Futbol Txapelketa

### EMAITZAK

|                               |     |
|-------------------------------|-----|
| XURRUPAK-BILDURBAREK OPEL/LAM | 0-2 |
| EZINLEIKE-FACUTA              | 2-2 |
| MONGATXURRAK-ALTOS PORNOS     | 2-0 |
| ARLOTEAK/OILAGORRA-A ZE FLAXA | 2-0 |

### FINALERDIAK

**Astelehena 15**  
19:30: MONGATXURRAK-ARLOTEAK/OILAGORRA

**Asteartea 16**  
19:30: BILDURBAREK OPEL/LAM-LA JUVE ETA  
AMILOTX-MATXAKATEGI PARTIDUETAKO  
GARAILIEN ARTEAN JOKATUKO DA.

### FINALA

Ostirala 19

### GOLEGILEAK

**8 gol**  
Ibai Elorza.  
Angiozar.

**7 gol**  
Iban Blanco.  
La Juve.

**6 gol**  
Xabier Zangitu.  
Mongatxurrak.

**5 gol**  
Iñaki Arrieta. Bildurbarek Opel/Lam.  
Jabier Carrascosa. Arloteak/Oilagorra.  
David Maestre. Amilotx.  
Ibon Larrañaga. Bildurbarek Opel/Lam.

### KOMENTARIOA

**Mongatxurrak** eta **Arloteak/Oilagorak** taldeek jokatuko dute txapelketako lehen finalerdia emaitza berberarekin (2-0) irabazi ondoren bakoitzak bere partidua. Gainera bi taldeek jokatuako partiduak antzerako samarrak izan dira. Joko ona ez dute erakutsi, baina irabazi egin dute eta hori da balio duena. Bi taldeen jokalariek eta erakutsi duten jokoa ikusita ezin da esan zein den faborittoa, baina gogoratu behar da Arloteak/Oilagorakek ez diola inoiz irabazi Mongatxurraki. Iazko txapelkunordeek Zangituren baja garrantzitsua dute.

### JOKOZ KANPO



IGOR BOUZA

ALTOS PORNOS

#### Lastima izan da partidua

#### Mongatxurraren aurka galtzea?

Bai, halere errezago galdu behar genuela uste nuen, baina partidu ona jokatu dugu.

#### Irabazteko aukerarik izan duzue?

Bai, baina oso gutxi.

#### Zer moduz joan zaizue txapelketa?

Justuan sailkatu gara hurrengo faserako, berdinketa mordoarekin. Zorte pixka bat izan dugu.

#### Guztiak Labegarrietakoak zarete.

#### Galtzen duzuenean edo irabazten duzuenean auzoan igartzen da?

Ez, ez da igartzen. Partiduetara etortzen dira kuadrilako neskak animatzera, baina ez da asko igartzen.

#### Agian horregatik galduko zenuten?

Bai, oso gutxi animatzen dute eta.

#### Txapelketako talderik onena?

Bildurbarek Opel/Lam. Jokalari oso onak ditu: Ramon, Etxaniz, Ibontxo... kategoria. Uste dut txapelketa irabaziko dutela.

#### Arbitroekin gustora?

Nahikoa meritu dute.

#### Arazorik izan duzue beste taldeekin?

Ez, gu oso paketsuak gara.

#### Federatuak bai ala ez?

Daudenekin nahikoa, bestela guk ez genuke ezer egingo.

#### Zuk egindako jokoarekin gustora?

Ez, txarra naiz. Aukeratxoren bat izan dut gola sartzeko, baina ezin izan dut.



## Nesken futbito txapelketa

### EMAITZAK

|                                   |     |
|-----------------------------------|-----|
| POTZU TA ZAPABURUAK-BOKAGE        | 4-0 |
| BOST TABERNA-GU GEU               | 3-2 |
| BOST TABERNA-POTZU TA ZAPABURUAK  | 4-1 |
| POWER RANGERS-BOKAGE              | 3-0 |
| GU GEU-BLUE STARS                 | 2-1 |
| POWER RANGERS-POTZU TA ZAPABURUAK | 5-1 |

### PARTIDUAK

#### LARUNBATA, 13

BOST TABERNA-POWER RANGERS  
POTZU TA ZAPABURUAK-BLUE STARS  
GU GEU-BOKAGE

#### ASTELEHENA, 15

BOST TABERNA-BOKAGE  
POWER RANGERS-BLUE STARS  
POTZU TA ZAPABURUAK-GU GEU

#### OSTEGUNA, 18

BOST TABERNA-BLUE STARS  
POWER RANGERS-GU GEU  
POTZU TA ZAPABURUAK-BOKAGE




**Blue Stars** taldea Olatz Bideluze, Bilaitz Marzan, Maite Aizpiri, Ainhoa Arrondo, Maite Irureta, Nerea Alzola, Leire Alegre, Maite Mujika, Nagore Santos, Saioa Bolibar, Eider Ruiz, Ainize Gomez de Segura, Lierni Lazaro eta Monica Garitanok osatzen dute. Azkenengo txapelketan 3. postuan geratu ziren eta oraingoan ez dabilta hain ondo. Halere, txapelketako gazteenak dira.

| TALDEA                 | P  | J | G.A. | G.K. |
|------------------------|----|---|------|------|
| 1. POWER RANGERS       | 16 | 7 | 20   | 13   |
| 2. POTZU TA ZAPABURUAK | 15 | 7 | 25   | 13   |
| 3. BOST TABERNA        | 9  | 6 | 16   | 19   |
| 4. GU GEU              | 7  | 6 | 10   | 10   |
| 5. BLUE STARS          | 6  | 6 | 10   | 16   |
| 6. BOKAGE              | 3  | 6 | 1    | 14   |

## Aritz Berraondo Elgetan Txapelkun

Aritz Berraondo pelotari antzuolarrak Elgetako lau t'erdiko finala 22 eta 10 irabazizion Ivan Otaegi azpeitiarrari 23 urtez azpikoentzako txapelketan. Berraondok erakutsi zuen sasoiaren aurrean ezin izan zuen ezer egin azpeitiarrak. Antzuolarrak garbi erakutsi du gazteen artean etorkizun onenetariko duen pelotaria dela. Bergarako Pentekostes torneooko finalean ere zaletuak oso gustora utzi zituen. Elgetan jokaturako partiduak 33 minutu iraun zuen eta horrek garbi adierazten du Berraondoren nagusitasuna. Horrela jarraitzen badu laister ikusi dezakegu profesioaletan.



# Goio Arrieta atxabaltarra BKEko entrenatzaile berria

**Goio Arrieta** atxabaltarra izango da BKEko preferente taldeko entrenatzailea datorren urtean. Arrietak 35 urte ditu eta Bergaran jokatzeko arituzen. Urtebetez UDako preferente taldeko entrenatzailea izan da eta Iñigo Zaitegi, BKEko presidentea adierazi digunez, "gure asmoa Javi Perezekin jarraitzea zen, baina Eibarrek oinarritzko futbolaren arduradun izatea eskeini dio eta laga egin gaitu. Arrieta, Perezek gomendatuta etorri da eta BKEren datu guztiak eman dizkio. Gure ustez entrenatzaile ona izango da eta Perezen laguntza osoa izango du".

Asteazkenean Arrieta-ekin berba egiteko aukera izan genuen eta adierazi digunez, "sorpresa handia izan da niretzat Bergarara joatea, baina ilusio eta gogo handiarekin noa. Talde gaztea eta herriko jokalariz osatutakoa da eta hori gustatzen zait. Oraindik taldea ez dut oso ondo ezagutzen, baina entrenamenduekin ezagutzeko aukera izango dut".

Ostegunean, preferente mailako jokalarien ordezkariekin biltzeko zen elkar ezagutzeko.



## Lauri, Lizarralde, Muela, Jurado...

Preferente eta 2. mailako erregional taldeak datorren astelehenean hasiko dira entrenatzen eta aurpegi berriei dago kienez Miguel Angel Muela bergararrak frogak egingo ditu eta Bergaran bizi den 26 urteko Lizarralde lehen taldearekin hastekotan da. Lizarralde Lagun Onak eta Zestoa taldeetan jokatu du eta erdilaria da. Bestalde, Lauri Askargorta atezaina eta Juanjo Jurado atzelaria, duela bi urte Bergaran jokatu zuena, bueltatu egingo dira. Jubeniletatik, oraingoz, Franco eta Blanco igoko dira. Datorren denboraldian bi talde nagusiak elkarrekin

entrenatuko dira. "Guztira 40 jokalarik inguru izango ditugu eta guztiekin bloke bat egiteko asmoa dugu. Jokalariak edozein momentutan gora igotzeko prest izateko" adierazi digu Zaitegik.

## Maki Antzuolara

Bestalde, Makik eta Igor Azkaratek taldea lagako dute. Asier atzelari elgoibartarrak ere taldea laga dezake. Halere, BKEko arduradunek jokalarik berriak ekartzeko asmoa dute batez ere atzean erdialdea indartzeko. Taldearen aurkezpen ofiziala uztailaren 29an edo 30ean izango da eta oporren ondoren, abuztuaren 19an, hasiko dira entrenamenduak.

ileapaindegia  
eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

GURIDI altzariak

Era guztietako  
altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behe

☎ 76 21 65 / 76 24 45



## T XINPARTAK

### Igerilariak Ordizian

Bergara Igeri elkarteko igerilariak asteburuan Ordizian jokatu diren Gipuzkoako jubencil eta nagusien txapelketan izango dira. Bergararik Ainhoa Alberdi, Itzal Gallastegi, Agurtzane Crespo, Amaia Lazpiur, Eneritz Muguruza eta Antxon Maiztegi joango dira Ordiziara.

### Taldeakako xake txapelketa

Datorren larunbaterako Santa Marinako jaien barruan taldeakako xake txapelketa antolatuko dute. Talde bakoitzeko 3 jokalaririk izango dira eta jokalaririk federatu bakarrik onartuko da talde bakoitzean. Izena emateko ostirala da azken eguna eta horretarako Kayak tabernara jo beharko da. Partidak azkarrak izango dira eta arratsaldeko 4:30etatik aurrera jokatu dira Kayak taberna aurrean.

### Mendiko bizikleten lasterketa

Datorren ostiralean, hilak 19, arratsaldeko 4:30etan Santa Marina jaien barruan San Martzialerako mendiko bizikleten igoera jokatu da. Lasterketa 18 urtez azpikoentzako antolatu da eta irteera San Martzialerako bidearen hasieran egingo da.

# Aitor Elkoro

## Euskadiko pelota txapelkun

**Aitor Elkorok 19 urterekin debutatu zuen profesionaletan eta laga ondoren 25 urterekin berriz itzuli zen profesionaletara. Ordutik hona etengabe hobetu du eta joan zen asteburuan Capellanekin batera bikoteentzako Euskadiko txapelketa irabazi zuen.**

- Txapelketa baino lehen espero zenuen irabaztea?

- Ze bikote zeuden ikusi eta gero oso zaila zen. Hasi baino lehen 3 partidu irabaztea zen eta, txiripaz, finalean sartzea zen asmoa. Baina lehengo laurak irabazita finalera heldu ginen. Partidu gogorra izan zen eta lehertuta bukatu genuen.

- Finalean, 20na zeundetenean, zer pasa zitzaizun burutik?

- Arretxe justu samar ikusi genuen eta atzera ateratzen ahalegindu ginen. Halere, 20na berdinduta zaudenean edozeinek irabazi dezake eta nekatuta zaudenez, hutsak erabakitzen dute.

- Pelotaren aurpegi polita bizitzen ari zara, baina momentu txarrak ere izan dituzu.

- Denok bezela. Pelotariak momentu txarrak eta onak izaten ditu. 19 urterekin profesionaletan debutatu nuenean nahiko gaizki pasatu nuen. Eskuak gaizki eta moralez ere gaizki pasatu nuen. Gero, tartean soldaduzka izan nuen eta pelota laga nuen. Halere, hemen ez dago miraririk, lana egin

behar da. Orain eskuetatik ondo nabil eta hori oso garrantzitsua da.

- Zerbait aldatu du txapelketa irabazteak?

- Ez, halere oso garrantzitsua da profesionaletan txapel bat irabaztea pelotari on asko baitaude eta txapelketa gutxi. Lehengo moduan jarraitu behar dut entrenatzen eta saiatu beste txapelen bat irabazten.

- Finalaren osteko zorionik politena?

- Denak, baina kuadrila han, Labriten, animatzen ikustea oso polita izan zen.


- Puntan ibiltzeko zer behar da?

- Zer esango dizut ba!

Ez dakit zer esan, baina kolpea izatea oso garrantzitsua da erritmoa aldatzeko. Nire esperientziak esaten dit prestakuntza ona izatea oso garrantzitsua dela. Gimnasioan pesak egin, erritmo aldatetako...

- Zela ikusten dituzu Berraondo eta Muruamendiaraz?

- Ondo. Berraondori, bikoteka ibiltzeko, pixka bat errematatzea falta zaito, bestela kolpez bikain ikusten dut. Muruamendiaraz berandu datorren mutila da eta oraindik indarrean sartu barik dago. Agian bi urtera sekulako saltoa eman dezake, oso pelotaria da.



"Orain eskuetatik ondo nabil eta hori oso garrantzitsua da".

## "Profesionaletan debutatu nuenean gaizki pasatu nuen"



Argazkia: Estanis Kortabarria

## San Kristobal jaiak

**S**an Kristobal auzoko jaiak tradizio handia izan dute eta hori frogatzeko horra hor orain 25-30 urte Angiozar bideko auzoko ermitan ateratako argazkia. Inguruko gidariak bertara joaten ziren meza entzun eta ondoren kotxe eta kamioiak bedeinkatzeko.

Tradizioak zutik dirau eta astebukaeran hainbat ekitaldi izango dira San Kristobalen. Bien bitartean, horra hor lehengo jaietako protagonistetako batzuk, ezkerretik eskumara:

**Atzean:** Jose Arenaza, Florencio Ruiz de Egiño eta Lorenzo Etxeberria.


**2. ilaran:** Julian Garitano, Don Jose Maria Azkarate apaiza, Jose Arregi, Domingo Unamuno eta Miguel Elorza.

**3. ilaran:** Julian Inza, Daniel Azkarate-Askasua, Lorenzo Loidi, Valentin Belastegi, Pedro Garitano, Bernardino Garitano, Benito Eguren, Juan Jose Inza, Jose Garitano, Fermin Garitano eta Manuel Iturricastillo.

**Zutik (aurrean):** Anselmo Elkoroiribe, Estanis Kortabarria, Federico Garitano, Meliton Gorrotxategi, Antonio Kortabarria, Pedro Garitano, Esteban Garitano eta Pedro Inza.

**Aurrealdeko gazteak:** Juan Mari Kortabarria, Mariano Agirre eta Inazio Zipitria.

**LUCIA LOPEZ JIMENEZ**



LUCI MARTINEZ IKASLEAREN AMA

Maitasuna sobera  
nintzelarik haurra,  
ez nekien nik zer zen  
gurasoen beharra.  
Bortu batean orain  
naiz bakar bakarra,  
haietaz oroitu orduko  
heldu zait negarra.

**AKULU**

**æk**

**EUSKALTEGIA**

# KAIKO

Astelehenetik larunbatera  
goizeko 7etatik zabalik.

Igande eta jaiegunetan  
goizeko 11etatik aurrera.



**GURE  
BEREZITASUNAK:  
RABAK ETA KAFAA  
KREMAREKIN.**

**ZABALDU BERRIA!!**



## **VENTANAS SAN MIGUEL**

**Ventanas San Miguelekin...  
denean irabaziko duzu.**

**Erosotasunean irabaziko duzu.**


**Aurrezpenean eta energian  
irabaziko duzu.**

**Isolamenduan irabaziko duzu.**

**Konfortean irabaziko duzu.**

**Ibargarai, 5 BERGARA ☎ 76 12 21**

*Etonki guzera!  
Denean irabaziko duzu.*





**bihurgarriak**



**metalezko egitura**



**bihurgarriak**



**zuzala kentzekoak**



**ohe-sofak**



**txokoararak**



**bihurgarriak**



**erlajatzeko siloi elektrikoak**



**ohe-sofak**



**txokoararak**



**bihurgarriak**



**erlajatzeko siloi elektrikoak**



**microvin**



**larruzko sofak**





**alcántara**



**txokoararak**



Sofa



Oparirik Freskagarrirenak ziretz

grupo



Amuebladora Mondragonesa

Zigarola, 1  
Junto a Centro Hogar Muebles

Tel. 77 14 92

ARRASATE